

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/33/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA
2008ko martxoaren 11koa, erabilbizitza amaitzen zaien ibilgailuei dagokien 2000/53/EE
Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/33/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008 que modifica la Directiva 2000/53/CE relativa a los vehículos al final de su vida útil, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 81/62, 2008/3/20koa*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2008/33/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko martxoaren 11koa,

erabilbizitza amaitzen zaien ibilgailuei dagokien 2000/53/CE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidetza eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 175. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eta eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren, Tratatuaz 251. artikulua ⁽²⁾ araututako prozedura bete,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 2000/53/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak ⁽³⁾, xedatzen du, zenbait neurri 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren arabera onartu behar direla. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak ⁽⁴⁾ berari dagozkion eskumenak betearazteko.

(2) 2006/512/EE Erabakiak 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen. 2006/512/EE Erabakian, Tratatuaz 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko zer neurri orokor hartu behar diren kontrolatzen duen arautze-prozedura ezarri zen, eta aukera ematen zuen elementu horietako batzuk ezabatze, edo egintza funtsezkoak ez diren beste elementu batzuekin osatzeko.

(3) 2006/512/EE Erabakiari dagokionez, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen ⁽⁵⁾ Adierazpenaren arabera, Tratatuaz 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki hartu eta indarrean dauden egintzetan kontrolatzen arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera egokitu behar dira.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, eranskinak molda ditzan eta betekizun tekniko eta kontrol-arau jakin batzuk ezar ditzan. Neurri horiek orokorrak eta 2000/53/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrolatzen arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(5) Batzordeak 2000/53/EE Zuzentaruako 5. artikuluko 5. paragrafoan, 7. artikuluko 2. paragrafoan eta 8. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren garapen-arauak ezarri dituela kontuan hartuz, 2002/151/EE ⁽⁶⁾, 2005/293/EE ⁽⁷⁾ eta

(1) EO C 161, 2007.7.13koa, 45. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko uztailearen 11koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

(3) L 269 EO, 2000-10-21ekoa, 34. or. Zuzentaru hori Kontseiluaren 2005/673/EE Erabakiak aldatu zuen azkeneko (L 254 EO, 2005-09-30ekoa, 69. or.).

(4) L 184 EO, 1999-07-17, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006-07-22, 11. or.) aldatu zuen Erabakia.

(5) EO C 255, 2006.10.21ekoa, 1. or.

(6) 2002ko otsailaren 19ko Batzordearen 2002/151/EE Erabakia, 2000/53/EE Zuzentaruari jarraiki (L 50 EO, 2002.02.21ekoa, 94. or.) igorritakoa, suntsitze-agirien gutxieneko betekizunei buruzkoa.

(7) 2005eko apirilaren 1eko Batzordearen 2005/293/EE Erabakia, 2000/53/EE Zuzentaruaren ezartzen diren (L 94 EO, 2005.04.13koa, 30.or.) berrerabilpen eta balioespen helburuak, eta berrerabilpen eta birziklatze helburuak betetzen direla kontrolatzeko garapen-arauak ezartzen dituenak.

2008/33/EE zuzentaruak (EBren Egunkari Ofiziala, L 81/62 2008/3/20koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2003/138/EE ⁽⁸⁾ Erabakien bidez jarraian adierazten diren epeen erreferentziak ezabatu egin behar dira: 2001eko urriak 21, 2002ko urriak 21 eta 2001eko urriak 21, hurrenez hurren.

(6) Horrenbestez, aipatutako 2000/53/EE Zuzentaraua aldatu egin behar da.

(7) Zuzentarau honen bitartez 2000/53/EE Zuzentaraan egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, estatu kideek ez dituzte, ezinbestez, beren zuzenbidean sartu behar. Horrenbestez, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2000/53/CE Zuzentaruak aldaketa hauek izan ditu:

1) 4. artikuluko 2. paragrafoan, b) idatz-zatia honela aldatu da:

a) sarrerako esaldiaren ordezt, testu hau jarri da:

«II. eranskina aurrerapen zientifiko eta tekniko aintzat hartuz egokituko da aldizka, honetarako:»;

b) lerrokada hau erantsi da:

«i) hitz-tartetik iv) hitz-tartera bitartean aipatzen diren neurrien helburua Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea izango da, eta 11. artikuluan, 3. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

2) 5. artikuluan, 5. paragrafoaren ordezt, testu hau jarri da:

«5. 3. paragrafoari jarraiki, estatu kideek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, eskumeneko agintariet gainerako estatu kideek igorritako suntsitze-agiriak elkarri aitortzen dizkietela eta onartzen dizkietela bermatzeko.

Horretarako, suntsitze-agiriaren gutxieneko betekizunak finkatuko dira. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri hori (Zuzentaraua bera ere osatu dezake), 11. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko da».

3) 6. artikuluan paragrafo hau erantsi da:

«6. I. eranskina aurrerapen zientifiko eta tekniko aintzat hartuta egokituko da. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko helburua duen neurri hori, 11. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko da».

1) 7. artikuluko 2. paragrafoan, hirugarren lerrokadaren ordezt testu hau jarri da:

«Beharrezkoak diren garapen-arauak ezarriko dira estatu kideek lehenengo lerrokadan finkatutako helburuak bete ditzaten.

Arau horiek proposatzerakoan, Batzordeak dagozkion faktore guztiak izango ditu kontuan, eta, besteak beste, erabilbizitza amaituta duten ibilgailuen esportazioen eta inportazioen datuen eskuragarritasuna eta emaitza.

(8) 2003ko otsailaren 27ko Batzordearen 2003/138/EE Erabakia, ibilgailuentzako osagai eta materialen kodetze-arauak ezartzen dituen, 2000/53/EE Zuzentaraua (L 53 EO, 2003.02.28koa, 58. or.) aplikatuta.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Garapen-arau horien helburua Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea izango da (Zuzentaraua bera ere osatu dezakete) eta 11. artikuluan, 3. paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

5) 8. artikuluan, 2. paragrafoaren ordean, testu hau jarri da:

«2. Lehenengo paragrafoan aipatzen diren arauak ezarriko dira. Arau horiek proposatzerakoan, Batzordeak kontuan izango du, arlo horretan, dagozkion nazioarteko foroetan burutzen den lana eta, hala dagokionean, lankidetzan ariko da lan horretan. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri hori (Zuzentaraua bera ere osatu dezakete), 11. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko da».

6) 9. artikuluan, 1. paragrafoan, honako puntu hau erantsi da:

«Datu-base sistemako ereduak, 11. artikuluan, 2. paragrafoan agindutako arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

7) 11. artikuluan, ordean, testu hau jarri da:

«11. artikulua

Komitearen prozedura

1. Batzordeak komite baten laguntza izango du; komite hori 75/442/EEE Zuzentarauko 18. artikuluari jarraiki sortu da.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean Zuzentarau hau.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ presidentea

2008/33/EE zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 81/62 2008/3/20koa)